

# BEZEROAREKIKO HARREMANAK

**Taldea:** Kroketak

**Idea:** Gure taldeak euskal tradizioa sustatzeko baserri bat ipintzea erabaki du aterpetxe modura. Egonaldiaren truke, ohi dena baino diru kopuru txikiagoa ordainduko dute. Izan ere, bezeroek baserriko lanak egin beharko dituzte: baratza landu, uzta bildu, abereak elikatu...

Bezeroak erakartzeko sare-sozial nahiz komunikabideetan, gure proiektuaren iragarkiak zabalduko ditugu bezero berriak erakartzeko; merkatu mota horretan, merkatu-kuota handia lortzea helburu dugularik. Iragarkietan ageriko den informazioak gure proiektuak zertan lagundu dezakeen erakutsiko du, baita bezeroek bertan egin ditzaketen ekintzen inguruko azalpena ere. Egin beharreko lanen inguruan argibideak emango genituzke; esaterako, baratzean landatu eta elikagaiak lortu beharko dituztela.

Informazio gehiagorako web orrialde bat dugula jakinaraziko diegu, bertan informazio gehigarria eskeiniko dugularik eta erreserba egiteko aukera izango delarik. Bestalde, uste dugu ahoz aho ere transmitituko dela gure zerbitzuaren kalitatea. Ondorioz, bezeroak erakartzeko beste irtenbide bat izan daiteke.

Bezeroak mantentze aldera aipatu dezakegu, gurera etortzen den oro, tentuz eta ahalik eta hobekien tratatzen ahaleginduko garela. Hori izango da bezeroak berriro ere etortzeko hautua egitea bideratuko dituztenak.